

BILBOKO KOMERTZIOAN
EUSKARA SUSTATU ETA
NORMALIZATZEKO
PLANA
- 2007 -



Biribilko
Bilbo Komertziala

Hiriko merkataritza
testuingurua:
hurbilpen
sozioekonomikoa

1.- OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Bilbo: Erreferentziazko hiri komertziala

Lehendik ere zerbitzu-hiri gisa Bilbo erreferentziazko hiria bazen, azken urteetan izan duen garapenak funtzio hori areagotzea ekarri du, ez EAE mailan soilik, baizik eta Europako Arku Atlantiko mailan ere.

- Bilboko merkataritza sektoreak 6.000 establezimendu inguru biltzen ditu, 10.000 sektorea zentzu zabalean hartuz gero (ostalaritza, zerbitzu pertsonalak...).
- Bilboko merkataritza jarduerak 20.000 pertsonatik gora enplegatzen ditu.
- jarduera komertzial honek, 1.750 milioi € inguruko salmenta bolumena eragiten du Bilbon urtero.

Merkataritza: hiriaren garapen iraunkorrerako sektore estrategikoa

Iraunkortasunaren kontzeptuak baldintzatuko du, gero eta gehiago, Bilboren garapena; iraunkortasuna, hirian aurrera eramango diren proiektuen alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumen alderdiak artikulatu eta orekatuko dituen prozesu gisa definituz. Zentzu horretan, merkataritzak funtzio estrategikoa jokatzeko du Bilbon:

- **garapen ekonomikoa:** jarduera ekonomikoaren eta fluxu ekonomiko-finantzieroen sortzaile, jarduera giltzarria da zerbitzu sektorearen balio-katean (zerbitzu turistikoak, ostalaritza zerbitzuak, finantzieroak, zerbitzu pertsonalak...)
- **garapen soziala:** enplegu sortzaile, gizarte harremanen euskarri eta egituratzaile, herritarrak bere ingurunearekin integratzen lagundu eta gizarte bizitza dinamizatzen du...
- **ingurumen-garapena:** ingurumenaren ikuspegitik zuzenak diren jarrerak sustatzeko faktore giltzarria da, herritarren artean mugikortasun eta garraio ohitura iraunkoragoak sustatzen izan dezakeen eragina handia izateaz gain, kontsumo ohitura osasungarriagoak susta dezakeelako.

Merkataritza sektorearen garrantzia hizkuntza normalizazio prozesuan

Hirietako txikizkako merkataritzaren hobekuntza eta biziberritze prozesuetan komunikazioak funtzio estrategikoa betetzen du, eta komunikazio horren barnean kokatzen dira hizkuntzak:


- hiriko komertzioa bereizten duen ezaugarrietako bat, bezeroekiko duen hurbiltasuna eta harreman pertsonalizatua da: eta hain zuzen ere, eskaria eta eskaintza harremanetan jartzen dituen hizkuntza, fideltasun komertziala sustatzeko faktore bihur daiteke.
- merkataritza sektorearen dinamismoa eta bizitasuna kontuan izanda, hizkuntzek sektore honetan duten presentzia eta erabilera maila, zenbateraino dauden hizkuntza horiek normalizatuta adierazten du.
- Bilboko merkataritza oso zabala eta anitza da, eta horrek sektore horretara zuzentzen diren estrategia eta prozesu komunikatiboek, hizkuntzen irudi sozialean eta hiriko ia zona guztietako hizkuntza paisaian eragina, ondorioak izatea dakar.

2.- MERKATARITZA ESKARIAREN ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK

Bilboko herritarren eta bertan bizi diren euskaldunen pisua

Bilbon bizi da eskualdeko herritarren %41, eta Bizkaiko herritarren %31.

Bilbo nahiz bere eskualdea –Bilbo Handia-, azken 10 urteetan mantsotzen joan den biztanleria galtze prozesu batean murgilduta daude.



Iturria: EUSTAT, 1986-1996. INE, 2006. Siadecok landua.

Euskal Herrian Bilbo da euskaldun gehien biltzen duen bigarren udalerrria: bertan bizi dira 53.000 euskaldun inguru. Bilbo Handiko gaineratiko udalerrietan (Bilboren gertuko eragin eremuan, alegia) beste 88.500 euskaldun gehiago bizi dira. Ia euskaldunei dagokienean (ondo hitz egiten jakin ez arren, ondo edo zerbait ulertzen dutenak), Bilbon 91.000 bizi dira eta Bilbo Handiko gainerako herrietan 132.500 inguru (2001eko Zentsuko datuen arabera).

Bilbo hiria hizkuntza normalizaziorako eta euskararentzako funtsezko eremua da: betetzen dituen funtzioengatik, bere eragina bere mugak gainditu eta Bizkaiko nahiz inguruko beste lurraldeetara zabaltzen da.

**Biztanleriaren hizkuntza gaitasunaren bilakaera Bilbon, Bilbo Handian, Bizkaian eta EAEn (2001)
(2 urtetik gorako herritarrek)**


	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak	Guztira	
				%	Kop.
Bilbo	15,5	26,6	57,9	100,0	342.382
Bilbo Handia	16,7	26,4	56,8	100,0	846.758
Bizkaia	25,0	24,8	50,2	100,0	1.097.288
EAE	32,3	23,1	44,6	100,0	2.033.247

Iturria: EUISTAT, 2001 . Siadecok landua.


Bilboko herritarren erosketa ohiturak

Janaria (freskoa eta sekoa) eta drogeria produktuak dira hein handi batean auzoko establezimenduetan bertan nagusiki erosten diren produktuak (herritarren %60k baino gehiagok halaxe egiten baitu).

Aldiz, hein handi batean bizi diren auzotik kanpo nagusiki erosten diren produktuak arropa eta oinetakoak eta altzariak eta etxeko tresnak dira (herritarren %50ek baino gehiagok).



Establezimendu mota, erosten den produktuaren arabera hautatzen da: supermerkatua da janari sekoa erosteko gehien erabiltzen dena, denda tradizionala arropa-oinetakoak eta bestelako produktu komertzialak erosteko, eta janari freskoa, denda tradizionaletan eta supermerkatuetan erosten da gehien.



Merktarritza gastua

Bilbok merktarritza saldo positiboa du: erakarrirako gastu komertziala (513,36 milioi € inguru), ihes egindako gastu komertziala baino 282,55 milioi € inguru handiagoa baita.

IHES EGINDAKO GASTU KOMERTZIALA		
Basauri		28.4
Barakaldo		24.9
Erandio		8.0
Leioa		18.6
Sestao		8.8
Bizkaiko enparaua		5.6
Besterik		5.8
GUZTIRA	%	100.0
	Kop.	230,81 milioi €

ERAKARRITAKO GASTU KOMERTZIALA		
Ibaiaren Ezkerraldea		25.5
Ibaiaren Eskuinaldea		23.1
Nerbioi Beherea		22.8
Mungialdea		5.9
Durangaldea		3.5
Enkartzioak		3.4
Gernika-Bermeo		2.2
Markina-Ondarroa		1.8
Arratia		1.2
EAEko enparaua		4.5
Estatuko enparaua		6.2
GUZTIRA	%	100.0
	Kop.	513,36 milioi €

Iturria: Bilboko Merktarritza Indartzeko Plan Berezia (MIPB/PERCO), 2002. Siadecok landua


IHES ETA ERAKARPEN FLUXU KOMERTZIALEN BALANTZEA	Miloi €
Erakarrirako gastu komertziala	513,36
Ihes egindako gastu komertziala	230,81
SALDO KOMERTZIALA	282,55

Iturria: Bilboko Merkataritza Indartzeko Plan Berezia (MIBP/PERCO), 2002. Siadecok landua

Bilboko merkataritza establezimenduetan, bertako herritarrek nahiz kanpotik etorritakoek (kanpo fluxuak) egindako gastu komertzial efektiboa 1.500 milioi € baino gehixeagokoa da. Gastu horren %33 janaria erosteko erabiltzen da, eta %29 arropa-oinetakoak erosteko.

Zona komertzialei dagokionez, gastu komertzialaren proportziorik handiena Abando eta Ibaiondon egiten da (%42 eta %24 hurrenez hurren). Bi hauek dira, hain zuzen ere, merkataritza saldo positiboa duten barruti bakarrak (hots, barruti hauetan benetan gastatutakoa, bertan bizi diren herritarrei dagokien gastu potentziala baino gehiago da).

Gastu komertzial potentziala, efektiboa eta saldoaren ehunekoak, barrutien arabera



Iturria: Bilboko Merkataritza Indartzeko Plan Berezia (MIBP/PERCO) 2002. Eustat 2004. Siadecok landua.

3.- MERKATARITZA ESKAINTZAREN ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK

Merkataritza egitura

Merkataritza jardueraren adar nagusiak bestelako txikizkako merkataritza (establezimendu guztien %26), janari-dendak (%25) eta ehunki-konfekzio-oinetako dendak dira (%22).

Bilakaerari dagokionez, 1996-2001 urteen artean establezimendu kopuruan izandako jaitziera azpimarratu behar da (-%11). 1996. urtetik aurrera aldiz, establezimendu kopurua mantentzen da gutxi gorabehera.

Bilboko txikizkako merkataritzaren bilakaera, jarduera adarraren arabera: 1996-2006


		1996	2001	2006	Aldea (2006-1996)
Ibilgailuak eta akzesorioak		2.5	2.7	3.0	0.5
Supermerkatuak eta espezializatu gabeko bestelako establezimenduak		6.4	5.4	4.1	-2.3
Janaria, edaria eta tabakoa		30.5	27.1	24.9	-5.6
Drogeria, lurrindegia eta farmaziako produktuak		6.3	6.6	7.0	0.7
Ehunkiak, oinetakoak eta larrua		21.1	21.4	22.4	1.4
Altzariak eta etxeko tresnak		11.9	12.5	12.7	0.8
Bestelako txikizkako merkataritza		21.2	24.2	25.8	4.6
GUZTIRA	%	100.0	100.0	100.0	
	Abs.	6.747	5.983	5.979	

Fuente:Eustat 1996, 2001, 2006. Siadecok landua.

Bilboko merkataritza establezimenduen ia herenak Abandon kokatzen dira, %18 Ibaiondon, eta Deustun eta Begoñan, ia %12na kokatzen dira.

Merkataritza establezimenduen kopuruak behera egin du barruti guztietan, Abandon izan ezik.

Bilboko txikizkako merkataritza establezimenduen bilakaera, barrutien arabera (1999-2004)




Iturria: Bilboko Merkataritza Indartzeko Plan Berezia (MIPB) 2002. Eustat 2004. Siadecok landua.

Merkataritza dotazioa


Bilboko merkataritza dotazioa, 1.000 biztanleko 16,7 establezimendukoa da.

Batez besteko dotazio horren gainera agertzen zaizkigun bi barruti bakarrik, batik bat Abando, eta dezente beherago, Ibaiondo dira.



Merkataritza establezimenduen antzinasuna

Bilboko merkataritza establezimenduen %21 orain 6 urte baino gutxiago zabaldu dela adierazten da, lautik batek 6-16 urte bitartean daramatza irekita, eta beste hainbestek 16-35 urte bitartean. Orain dela 35 urte baino gehiago zabaldutako establezimenduak %11 dira. Honek, establezimendua zabaldu zuten urtearen ikuspegitik, sektoreak izan duen dinamismoa eta aniztasuna islatzen du.



Sektoreak iraganeko eta etorkizuneko bilakaera ekonomikoaren inguruan duen pertzepzioa

Establezimenduen %34k, azken 3 urteetan salmentek behera egin dutela uste dute, beste hainbestek mantendu egin direla diote, eta %19k aldiz, gora egin dutela.

Etorkizunari begira (datozen 3 urteetan), oro har, itxaropentsuagoak agertzen dira: salmentek gora egingo dutela erantzuten dute ia %30ek, eta okerrera joango direla aldiz, %15ek.

